

## Aurtengo ikasturtean 355 ikasle berri izango ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak

2015/09/08

2015-2016 ikasturtean, **355 ikasle berri** izango ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Hala, Hezkuntzako gradu presentzialetako lehenengo mailetan, 174 ikaslek eman dute izena; hezkuntzako erdi-presentzialeko aukeran, ostera, 95 ikaslek egin dute matrikula. Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan, berriz, 50 ikasle berri izango dira lehen mailan. Azkenik, unibertsitate masterrei dagokionez, 36 lagunek eman dute izena fakultateak eskaintzen dituen hiru masterretan. Kontua hartu behar da, gainera, kopuru horiek ez direla behin betikoak, izan ere, zenbait ikasketetan oraindik irekita dago matrikula egiteko epea.

Ikasketaka antolatuta, horrela banatzen dira 2015-2016 ikasturtean fakultatera etorriko diren ikasle berriak:

- Haur Hezkuntza gradu presentziala: 88 ikasle.
- Lehen Hezkuntza gradu presentziala: 92 ikasle.
- Hezkuntza *online* eta gradu erdi presentzialak: 95 ikasle.
- Ikus-entzunezko Komunikazio gradua: 50 ikasle.
- Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterra: 23 ikasle.
- Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra: 11 ikasle.
- Eskolak emateko gaitzen duen unibertsitate masterra: 22 ikasle.

Guztira, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 1.000 ikasletik gora izango ditu aurtengo ikasturtean.

